



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko apirilaren 16a

36 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako arriskuko material espezifikokoak suntsitzeko arauak ematen dituena.  
Aurkeztutako zuzenketak ([2. or.](#)).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeko buruzko martxoaren 5eko Foru Legea aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketak ([12. or.](#)).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean irrati-komunikazioko instalazioak antolatzekoa.  
Akats zuzenketa ([13. or.](#)).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erriberri aldean telebistako emisioak behar bezala hartzeko neurriak har ditzan. Erretiratutako mozioa ([14. or.](#)).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako arriskuko material espezifikoak suntsitzeko arauak ematen dituen**

### **AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako arriskuko material espezifikoak suntsitzeko arauak ematen dituen Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2001eko abenduaren 26ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

### **OSOKO ZUZEKETAK**

#### **1. ZUZENKETA**

##### **MILAGROS RUBIO SALVATIERRA**

FORU PARLAMENTARI  
ANDREAK AURKEZTUA

Batzarre-Askotariko taldeko parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak, Biltzarreko Erregelamenduko 126. artikuluan xedatuaren babesean ondoko zuzenketa aurkeztu du:

Nafarroako arriskuko material espezifikoak suntsitzeko arauak ematen dituen Foru Lege proiektua itzultzeko osoko zuzenketa

Zioak: Gure erkidegoan arriskuko material espezifikoaren suntsipena arautzearen Nafarroako Gobernuak aurkeztu duen lege proiektua arrazoi askorengatik arras desegokia iruditzen zaigu.

1. Proiektuan errausketaren aldeko apustua egiten da arriskuko material espezifikoak suntsitzeko sistema hobereana delakoan, eta gure erkidegoan sistema hori instalatu nahi da, baina errausteko instalazioak erabat publikoa izateko betebeharrak ezarri gabe. Proiektuaren zioen azalpenean orobat esaten da, oinarririk batere gabe

eta erdeinuz, ezinezkoa izan dela kapital pribatu-ko erraustegi bat instalatu "Nafarroaren edo beste edozein gizarte aurreraturen garapenik txikienari ere aurka egiten dioten talde batzuen gehiegizko eta neurririk gabeko presioa pairatzeagatik".

Hondakin arriskutsuen kudeaketak publikoa izan behar duela uste badugu ere, une honetan aurrez aurre dugun arazorik behinena da ea Nafarroan gaur egun arriskuko material espezifikoak erraustea beharrezkoa den ala ez –kontuan izan behar da hondakinak erraustea gizakien osasunari eta oro har ingurumenari kalte egiten dioten gai kutsatzaile ugari jaulkitzea dakarrela–; zalan-tza horren aurrean, gure ustez, gurea bezalako erkidego txiki batek ez du behar hondakin horiek suntsitzeko erraustegi bat, horiei eman beharreko tratamendua eta iraupena oraindik definitu gabe baitaude. Horregatik, komenigarria litzateke denbora tarte bat edo moratoria bat hartzea eta egungo prozedurarekin jarraitzea, bitartean ikerketak aurrera egin dezan, behin betiko konponbideak abiarazi aitzin.

Gure taldeak errauste sistemari buruz duen iritziaz gain, esan beharra dago gisa horretako instalazioek diru publiko ugari gastatu beharra ekar dezaketela, baldin eta auzi horretarako erraustegi bat berariaz eraikitzen bada, ingurumen aldetik betekizun zorrotzak bete beharko lituzketelako, betekizun horien maila jaitsi edo erraustegia bes-telako hondakinak suntsitzeko erabili nahi ez bada behinik behin. Bi aukera horiek baztertzekoak dira inondik ere.

2. Lege proiektuko 2. artikuluan esaten da arriskuko material espezifikoak zabortege publikoan lurperatuz desegin ahalko direla.

Europako arauak azken aukera gisa ematen dute lurperatzearena, bitarteko gutxien dituzten herrialdeei irtenbide bat emateko asmoz. Digestoreko tratamenduen bidez ez da bermatzen prioia suntsitzen denik, eta ezin da segurutzat jo haragi-

irinek arriskuko material espezifikorik ez daramatenik, kontzeptu hori aldiro aldatu baita eta etorkizunean ere aldatzen jarraitzen ahal baitu.

3. Nafarroan erraustegi bat instalatzea "interes orokorreko" jotzean, ez da ez lizentziarik ez bestelako toki-kontrol prebentiborik behar instalazioa toki jakin batean paratzeko. Pitillasen paratzeko asmoari eutsiz gero, gogoratu egin behar da kokapen horren kontrako iritzia eman zela Ingurumen Departamentuak auzi horri buruz egindako txostenean; izan ere, 15 puntu eman zitezkeen eta 7 baizik ez zituen jaso, hau da, gutxiegi.

Azkenik, nabarmendu behar da gisa horretako instalazioak ezin direla eraiki ukitutako herrietako biztanleek espresuki onartu ezean, eta beharrezkoa dela haiei zuzenean galdetu behar zaiela, eskatzen baldin badute herri kontsulta lotesleak eginez.

Hori dela-eta, eta lege proiektuak ez dituen gure proposamenak jasotzen, proiektuaren aurka azaldu eta gure eskakizunak betetzen dituen beste bat igortzeko eskatu beste erremediorik ez dugu.

## 2. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako arriskuko material espezifikokoak suntsitzeko arauak ematen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa, eta ordezkotestua.

#### ZIOEN AZALPENA

Entzefalopatia espongi-forme kutsagarrietarako arriskuko material espezifikokoak suntsitzeko arauak ematen dituen azaroaren 24ko 1911/2000 Errege Dekretuak ezartzen duenez, arriskuko material espezifikokoak, ekoizirik, erabat suntsitu behar dira. Suntsitu beharra dago, halaber, abeltegietan hil diren behi, ardi eta ahuntzak.

Behi-aziendaren entzefalopatia espongi-formea agertu zenetik, Nafarroako Gobernuak zenbait arau eman ditu Foru Komunitatean gaixotasun hori kontrolatu eta desagerrarazteko.

Arriskuko material espezifikokoak tratatzeak eragindako produktuak, hasiera batez, hiri hondakin solidoak eramaten diren hondakindegietan lurperatzeko saioak egin ziren. Aukera horren aurkako iritzia indarra hartu zuen, eta prioriak –gaixotasuna sorrazten zutenak– erabat suntsitzeko modurik eraginkorrena hondakinak erraustea zela fro-

gatu zenez, Gobernuak Parlamentuan lege proiektu bat aurkeztu zuen Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzeko. Lege proiektu horrek –artikulu bakarra zuen– idatz-zati bat gehitu zion legerari, eta, horren bidez, eta salbuespen gisa, hiru kasutan onartzen zen errausketa, krisi egoerak justifikaturik betiere. Izan ere, kontuan izan behar da behi-aziendaren entzefalopatia espongi-formearen lehen kasuak agertu zirela eta Nafarroan sortutako material arriskutsuak suntsitzeko zailtasunak zeudela hasieran, Animalien entzefalopatia espongi-formeak begiratu eta kontrolatzeko programa integral koordinatuaren ondoriozko neurri bereziak zirela-eta.

Nekazaritza kontseilariaren foru agindu baten bidez, Nafarroan material horientzat erraustegi bat jartzeko aukera jaso zen; foru aginduan arautzen zen administrazioak erraustegia eraikitzeko proiektuaren adjudikazioa hartuko lukeen enpresari ematen ahal litzaiokeen dirulaguntza.

Behin proiektua adjudikatuta, Gobernuak udalez gaindiko proiektu sektorial izendatu zuen, eta, beraz, Lurraldearen antolamenduari buruzko 10/1994 Legean ezarritako tramite guztiak pasa.

Gobernuak, tramiteak amaitu zirenean, udalez gaindiko plan sektoriala onetsi zuen, eta hasiera eman zitzaion jardura sailkatuen lizentziaren tramitazioari, erraustegia jarriko zen udalean hain zuzen.

Erraustegia ekimen pribatuaren bidez jartzeak gizartearen erantzun gogorra eragin zuen. Azkenik, zailtasun handiak izan zituen, proiektuak hutsune teknikoak baitzituen eta aurrekontuetan behar adinako aurreikuspenik ez baitzegoen erraustegia eraikitzeko: proiektuak ez zituen jasotzen udalez gaindiko plan sektorialak eta jardura lizentziak berak eskatzen zizkieten metodo zuzen-tzaileak.

Hutsune ekonomiko horrek eragin zuen, duda gabe, adjudikazioa hartu zuen enpresak proiektuarekin aurrera jarraitu nahi ez izatea; horrela, interes kontrajarrien gatazka gertatu zen.

Batetik, adjudikazioa hartu zuen enpresa hasia zen ekipoak erosten; bestetik, udalak enpresaren hitzartuak zituen terenoak eta baldintza ekonomikoak; eta, azkenik, Nafarroako Gobernuak konprometitua zuen erraustegia eraikitzeko dirulaguntza publikoa.

Momentuotan, Nafarroako arriskuko material espezifikokoak suntsitzeko arauak ematen dituen lege proiektu bat aurkeztu da. Ekimen publikoaren subsidiarotasun printzipioak justifikatzen du lege

proiektua; asmoa da erabat inbertsio publikoarekin finantzatzea ekimen pribatuak aurkeztu zuen proiektua. Ez da argi uzten nor kudeatuko duen gero eraikitako erraustegia, nahiz eta badirudien konponbide bat dela adjudikazioa hartu zuen enpresak finantzatu nahi izan ez zuena –Gobernuaren aurreikuspen ezagatik– finantzatzeko, eta azkenik enpresa horri emateko erraustegiaren kudeaketa; hori da lege proiektuarekin nahi dena.

Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 10/1994 Legeak nahiz Hondakin berezien kudeaketa planak hondakin horien kudeaketa publikoaren alde egiten dute, eta, kasuren batean, aukera ematen dute ekimen pribatuak horiek kudea ditzan, baldintzatuz jarrita administrazio publikoak betiere parte hartu beharko duela. Beraz, aukeran dauden eredu bakarrak dira kudeaketa publiko garbia edo bitariko kudeaketa.

Nafarroako Gobernuak porrot erabatekoa izan du aipatu diren proiektuetan eta, hori dela eta, zenbait neurri inposatu nahi dira osoko zuzenketa aurkeztu diogun lege proiektu honen bidez. Lege proiektu batek ezin du inposaketa oinarri hartu, baizik eta benetako beharren ezagutza eta objektibotasuna, kontuan hartuz gizarte osoarentzat izan direla neurriak.

Jabetzen garenez Foru Komunitatea arautu beharrean dagoela arriskuko material espezifikoak suntsitzeko instalazioen gaia, lege proiektu hau aurkeztu dugu.

**1. artikulua.** Entzefalopatia espongi-forme kutsagarrietarako arriskuko material espezifikoak eta, halaber, Nafarroako abeltegietan hildako behi, ardi eta ahuntzak, azaroaren 24ko 1911/2000 Errege Dekretuan aurreikusitakoak betetzen dituen tratamendu instalazio batean utziko dira.

**2. artikulua.** 1. artikuluko instalazioetako tratamendua jatorri duten irinak ezin izan diren lurperatu hiri hondakin solidoak hartzen dituzten hondakindegietan. Foru Komunitatean lege honetako 3. artikulua ezarritako ezaugarriak dituen instalaziorik ez dagoen bitartean, Foru Komunitateaz kanpo dauden errausketa osorako edo osagarriko instalazioetan utzi beharko dira aipatutako irinak, 1911/2000 Errege Dekretuko I. eranskinak ezartzen duenez.

**3. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitatean erraustegi bat ezartzeko, hurrengo baldintzak bete beharko dira nahitaez.

a) Titulartasun edo kudeaketa publikokoa beharko du.

b) Europako nahiz Espainiako legediek hondakin toxiko nahiz arriskutsuen errausketari buruz ezarritako baldintza tekniko guztiak bete beharko ditu.

c) Gertueneko biztanle gunetik 4.000 metrora ezarrita beharko dute gutxienez ere, eta babestutako edozein natur gunetik 5.000 metrora.

**4. artikulua.** Arriskuko material espezifikoak eta hildako animaliak honela suntsituko dira:

a) Zuzenean erraustuko dira, alde aurreko tratamendurik gabe.

b) Errausketen ondoriozko errauskak hondakin berezientzako hondakindegian batean utziko dira.

**5. artikulua.** Titulartasun eta kudeaketa publiko erraustegi baten instalazioa udalez gaindiko proiektu sektorial baten bidez tramitatuko da, Lurraldearen antolamenduari buruzko 10/1994 Legeak ezartzen duenez; ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa ere egiten da, egin behar dela baitago ezarrita.

### Azken xedapenak

**Lehenena.** Nafarroako Gobernuari esku ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren arauak eman ditzan.

**Bigarrena.** Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

### 1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

#### 1. ZUZENKETA

#### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua ordezteko zuzenketa. Hona testua:

1. artikulua. Entzefalopatia espongi-forme kutsagarrietarako arriskuko material espezifikoak, Nafarroan ekoizten dena, ondokoei eskuratu beharko dizkiete beren edukitzaile edo jabeek, ondoren suntsitzeko:

a) Lurraldearen arabera eskuduna den administrazio publikoak baimendutako eraldaketa industria bati, Nafarroan foru lege honetako 4.

artikuluak aipaturiko instalazioak erabiltzeko aukera ez dagoen bitartean.

b) 4. artikulua aipatzen dituen instalazioei, Nafarroan errausketa osoa edo osagarria egiteko metodoak erabiltzea posiblea ez den bitartean.

2. Nafarroan dauden abeltegietan hildako behiak, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak baimendutako eraldaketa-industria bati eskuratu beharko dizkiote beren edukitzaile edo jabeek, ondoren suntsitzeko. Nafarroan errausketa metodoak, errausketa osoa nahiz osagarria izan, erabiltzeko modua dagoenean, Foru Lege honetako 4. artikuluan aipaturiko instalazioetara eraman beharko dira.

Zioak: Gerta daitezkeen kasuak bereiztea; izan ere, ez dira gauza bera abeltegietako hildako behiak erretiratu eta suntsitzea eta hiltegietatik datozen arriskuko material espezifikoa suntsitzea eta bestelako eraldaketa industrietan suntsitzea. Halaber, kasu horiek Nafarroan errausketa osoko edo errausketa osagarriko metodoak erabiltzearen arabera bereizi beharko dira.

## 2. ZUZENKETA

### BATASUNA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

1. Nafarroako Foru Komunitatea izanen da, kapital publikoko enpresa baten bitartez, arriskuko material espezifikoa kontrolatu, detektatu, jaso, tratatu eta suntsitzeko prozesu osoa zuzenean kudeatuko duena.

2. Entzefalopatia espongiforme kutsagarriarako arriskuko material espezifikoa, Nafarroan ekoizten dena, eta Nafarroako abeltegietan hiltzen diren behiak enpresa horretara bidali beharko dituzte beren edukitzaile edo jabeek, ondoren suntsitzeko.

Zioak: Arriskuko material espezifikoa suntsitzeko arrazoi justifikatua osasun publikoa bermatzea dela kontuan hartu behar da, eta, hain zuzen ere, beti administrazio publikoaren erantzukizuna dela osasun publikoa bermatzea, eta sekula ez dela hori izan behar enpresentzako onura edo irabaziak lortzeko ez arrazoia ez helburua; hori horrela, gomendagarria da arriskuko material espezifikoen tratamenduaren gaiari modu integratuean ekitea. Horretarako, enpresa publiko bat sortuko da, material horiek kontrolatu, detektatu, jaso, tratatu eta suntsitzeko prozesu guztiaz zuzenean arduratzeko.

## 3. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona idazkerria berria:

1. artikulua. Entzefalopatia espongiforme kutsagarriarako arriskuko material espezifikoa, Nafarroan sortua, eta, halaber, Nafarroako abeltegietan hildako behi, ardi eta ahuntzak, azaroaren 24ko 1911/2000 Errege Dekretuan aurreikusitakoak betetzen dituen eraldaketa-industria baimendutako batean –Foru Komunitateko nahiz hortik kanpoko batean– utzi beharko dituzte haien edukitzaileek edo jabeek.

Zioak: Talde sozialistak ordezeko testua duen osoko zuzenketa adierazitako argudioekin bat etortzearen.

## 4. ZUZENKETA

### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“...Nafarroako Komunitateko Administrazioak baimenduriko industria batera bidali beharko dituzte beren edukitzaile edo jabeek, ondoren suntsitzeko” esaten duen tokian, ondokoa esan behar du: “...baimendutako eraldaketa industria batera bidali beharko dituzte beren edukitzaile edo jabeek, ondoren suntsitzeko”.

Zioak: Itxuraz, ez dago inongo arrazoirik arriskuko material espezifikoa emanen zaizkion eraldaketa industria berariaz Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak baimendutakoa izateko; administrazio zentralak edo beste autonomia-erki-degoetako administrazioek baimendutako industria bat ere izan daiteke.

### 2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

## 5. ZUZENKETA

### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Nafarroako Gobernu ahal den guztia egiten ari da foru lege bidez ezartzeko behi-azien-daren entzefalopatia espongiformearen krisiaren aurrean hartu dituen jarrerei eusteko; eta horrela ari da, nahiz eta, gai hau dela kausa, gizartea nabarmen aurka jarri eta erakundeen arteko borroka sortu. Artikulu honen edukia ez da, gure ustez, ez zuhurra, ez beharrezkoa.

## 6. ZUZENKETA

### BATASUNA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua ordezteko zuzenketa. Hona testu berria:

1. Enpresa publiko horrek arriskuko material espezifikoko errausten hasteko moduan ez dagoen bitartean, arriskuko material espezifikoko, behin arau indardunetan aurreikusitako aurretiko tratamendua eman ondoren, hondakin berezien zabortegi batera edo Nafarroako Foru Komunitateaz kanpoko errausketa osorako edo osagarrirako instalazioen batera eraman ahal izanen dira.

Zioak: 2. artikulua egiten duen aipamena, eraldaketa industriatik hurbilen dagoen hiri hondakin solidoen araztegiaren erraustu beharrari buruzkoa, kendu beharra dago, material horiek ezin baitira jarri hiri hondakin solidoen pare. Hondakin horiek, ordea, hondakin berezi gisa katalogatu ditu CERek.

Halaber, artikulua horrek erraustea hartzen du hondakinak suntsitzeko aldi baterako modu baten modura; suntsitzeko modu hori, ordea, Europako zuzentzarauk azken aukera gisa aurreikusten dute.

## 7. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona 2.1 eta 2.2 artikuluen idazkera berria:

2.1. artikulua.- Arriskuko material espezifikokoak, Nafarroako abeltegietan hildako behi, ardi eta ahuntzak, eta 1911/2000 Errege Dekretuko I. eranskinean jasotako alde aurreko tratamenduen ondoriozko materialak ezin izanen dira lurperatu hiri hondakin solidoak hartzen dituzten hondakindegietan.

2.2 artikulua.- 1911/2000 Errege Dekretuko I. eranskinean jasotako alde aurreko tratamenduen

ondoriozko materialak suntsitzeko, errausketa osoa edo osagarria besterik ezin izanen da erabili, eta, betiere, berariazko instalazioetan edo zementu-labeetan.

Zioak: Talde sozialistak ordezeko testua duen osoko zuzenketa adierazitako argudioekin bat etortzearen.

## 8. ZUZENKETA

### JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

2. artikuluko lehen idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

2. artikuluko lehen idatz-zatiaren bukaeran ondokoa gehituko da:

...”baldin eta hiri hondakin solidoen tratamendurako entitateak behar den baimena ematen baldin badu.”

## 9. ZUZENKETA

### JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

2. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

2. artikuluko 2. idatz-zatiari ondoko testua gehituko zaio:

“Hala bada, materialak eramateko eta tratatzeko gastuak Nafarroako Gobernuak finantzatu ditu”.

Zioak: Entzefalopatia espongiforme kutsagarriarena Nafarroako abeltzainen bizkar inola ere utzi behar ez den krisi bat da; arazo berezi bat denez gero, erkidegoaren diruarekin ordaindu behar dira haren eraginak.

### 3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

## 10. ZUZENKETA

### JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

3. artikulua kentzeko zuzenketa

3. artikulua osoa kendu behar da, uste baitugu administrazioen arteko harremanak lankidetzaz printzipioaren arabera ulertu behar direla, eta ez sekula ezarpenaren edo menderatzearen arabera.

## 11. ZUZENKETA

### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Nafarroako Gobernua ahal den guztia egiten ari da foru lege bidez ezartzeko behi-azien-daren entzefalopatia espongi-formearen krisiaren aurrean hartu dituen jarrerei eusteko; eta horrela ari da, nahiz eta, gai hau dela kausa, gizartea nabarmen aurka jarri eta erakundearen arteko borroka sortu. Artikulu honen edukia ez da, gure ustez, ez zuhurra, ez beharrezkoa.

## 12. ZUZENKETA

### BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin bat egiteko; izan ere, artikulua honetan ez dagozkien zenbait erantzukizun egozten zaizkie entitate batzuei.

## 13. ZUZENKETA.

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Talde sozialistak ordezkotestua duen osoko zuzenketan adierazitako argudioekin bat etortzearen.

### 4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

## 14. ZUZENKETA

### BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua ordezteko zuzenketa

4. artikulua ordezkotestua duen osoko zuzenketan adierazitako argudioekin bat etortzearen.

1. Nafarroan errausketarako instalazio publikoak erabiltzean bidezkoa denean, alde aurretiko tratamendurik gabeko errauste zuzena izan da arriskuko material espezifikoak suntsitzeko erabiliko den bitartekoa; errauste hori hondakin arriskutsuei buruzko lege eta ingurumen-arauetan ezarritako betekizun teknikoaren arabera izan da.

2. Errausketatik datozen hondakinak hondakin bereziak tratatzeko zentro publiko batean edo Nafarroako lurraldeko errausketarako instalazio publikoetatik hurbilen dauden hondakin bereziarako segurtasun zeldetan erraustu ahal izan dira.

Zioak: Bai errausketarako instalazioak, bai erraustetik datozen hondakinak gordetzeko zentroak hondakin arriskutsuei buruzko ingurumen arau indardunei egokitu behar zaizkie, halakotzat jotako hondakinak baitira.

## 15. ZUZENKETA.

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona 4.1, 4.2 eta 4.3 artikuluen idazkera berria:

Nafarroan erraustegi bat ezartzeko, hurrengo baldintzak bete beharko dira:

a) Titulartasun edo kudeaketa publikokoa beharko du.

b) Hondakin toxiko nahiz arriskutsuen errausketari buruzko arauak ezarritako baldintza guztiak bete beharko ditu.

c) Gertueneko biztanle gunetik 4.000 metrora ezarrita beharko du gutxienez ere, eta babestutako edozein natur gunetik 5.000 metrora.

d) Arriskuko material espezifikoak eta hildako animaliak zuzenean erraustuko dira, alde aurretiko tratamendurik gabe.

e) Errausketen ondoriozko erraustak hondakin berezientzako hondakindegian batean utziko dira.

Zioak: Talde sozialistak ordezkotestua duen osoko zuzenketan adierazitako argudioekin bat etortzearen.

**5. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**16. ZUZENKETA.**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA**  
**NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

5. artikuluko 3. idatz-zatiko bigarren lerrokada kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Gure ustez ez da inola ere beharrezkoa lerrokada horretan aurreikusitakoa.

**17. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA**  
**NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

5. artikuluko 3. idatz-zatiko hirugarren lerrokada kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Gure ustez ez da inola ere beharrezkoa lerrokada horretan aurreikusitakoa.

**18. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO**  
**DE NAVARRA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5.3 artikulua aldatzeko zuzenketa

Puntu horren azken bi lerrokada kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Talde sozialistak ordezeko testua duen osoko zuzenketan adierazitako argudioekin bat etortzearen.

**19. ZUZENKETA**

**BATASUNA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa

5. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak kendu eta haien ordezkari ondoko testua jartzea proposatzen dugu:

1. Arau indardunen arabera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasun eta kudeaketa publikoko zerbitzu publiko deklaratzeko

dira arriskuko material espezifikoak kontrolatu, detektatu, bildu, tratatu eta suntsitzeko eragiketa guztiak.

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin bat etortzeko, titulartasun eta kudeaketa publikoko zerbitzu publikoa deklaratzeko planteatzen da arriskuko material espezifikoekin loturiko prozesu guztirako, ez bakarrik zuzeneko errausketarako.

**20. ZUZENKETA****BATASUNA**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

5.3 artikulua aldatu eta testu hau proposatzen dugu:

2. artikuluko honetako 1. idatz-zatian aipatzen den zerbitzu publikoa kapital publikoa duen enpresa baten bidez emanen da; enpresa horrek zuzenean kudeatuko du arriskuko material espezifikoaren inguruko prozesu guztia: horiek detektatzea, biltzea, tratatzea eta suntsitzea.

3. Enpresa publiko horrek eskumena izanen du eginkizun dituenak aurrera eramateko beharrezkoak diren instalazio publikoak sustatu eta gauzatzeko.

Zioak: Zerbitzu publikoa ematen duen enpresak kapital publikokoa behar du, eta halakoak behar dute, halaber, eginkizun dituenak gauzatzeko beharrezkoak dituen instalazio guztiek ere.

**21. ZUZENKETA.**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO**  
**DE NAVARRA**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5.2 artikulua ordezeko zuzenketa. Hona testua:

Titulartasun publikoko erraustegi baten instalazioa udalez gaindiko proiektu sektorial baten bidez tramitatuko da

Zioak: talde sozialistak ordezeko testua duen osoko zuzenketan adierazitako argudioekin bat etortzearen.



**22. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA  
NAFARROAKO EZKER BATUA  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. 3. idatz-zatiko lehenbiziko lerrokada aldatzea proposatzen dugu. Hona testua:

“...bakarrik edo gehienbat kapital publikoa duen enpresa baten bidez ematen ahalko da...” dio proiektuak eta honela behar du: “...bakarrik edo gehienbat kapital publikoa duen enpresa baten bidez emanen da...”

Zioak: Arriskuko material espezifikoa eta hildako animaliak zuzenean errausteko zerbitzu publikoa eman eta kudatzen duen enpresak enpresa publikoa behar du izan. Gobernuaren proiektuak horretarako aukera besterik ez du ematen, hau da, zerbitzu publiko horren kudeaketa pribaturako bidea ere ematen du.

Gure ustez, enpresa publiko batek bakarrik berma dezake irizpide nagusia osasun publikoa babestea izanen dela eta ez besterik, hala nola enpresaren errentagarritasuna.

**23. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA  
NAFARROAKO EZKER BATUA  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. 3. idatz-zatiko lehenbiziko lerrokada aldatzea proposatzen dugu. Hona testua:

“...bakarrik edo gehienbat kapital publikoa duen enpresa...” dio proiektuak eta honela behar du: “...kapital osoa publikoa duen enpresa...”

Zioak: Ez dago inongo beharrik enpresa horretan partaidetza pribatu txikirik izateko.

**24. ZUZENKETA****BATASUNA  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa.

1. Arriskuko material espezifikoa suntsitzeko beharrezkoak diren instalazio publikoen kokagunea erabakitzeke, irizpidea izanen da kokagunea eragin zuzena edo zeharkakoa izanen duten udalekin adostu eta negoziatzea.

Zioak: Interes publikoa ezin da inola ere inposaketa tresna gisa hartu. Beraz, horrelako instala-

zioen kokaguneak zer herritarrei eragiten dien –udal horretakoei zein instalazioaren eraginpeko- ei-, horien gehiengoak onartu beharko du.

**XEDAPEN GEHIGARRIEI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****25. ZUZENKETA****JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI  
FERNÁNDEZ DE BARRENA  
FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Lehenbiziko xedapen gehigarria.

Entzefalopatia espongiforme kutsagarrietarako arriskuko material espezifikoen errausteketa osoa edo osagarria egiteko erraustegia non jartzen den, herri horren oniritzia behar da. Oniritzi hori egiaztatzeko, 18 urte baino gehiago duten herritarrei galdeketa eginen zaie.”

Zioak: Ahalik eta adostasun handiena ekarriko duten estrategiak bilatzea, eraginak zuzenean jasanen dituztenei lehentasuna emanez erabakiak hartzean.

**26. ZUZENKETA****JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI  
FERNÁNDEZ DE BARRENA  
FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Bigarren xedapen gehigarria.

Aurreko xedapenean ezarritako galdeketa bidez baiezkotzea jaso eta, erraustegia abian jarri aurretik, udalak oniritzia emanen dio Nafarroako Gobernuak finantzatu eta administrazio bien artean prestatutako garapen sozioekonomikorako planari.

Zioak: Horrelako azpiegitura bat jasan behar duen herritarren ahalegin solidarioari laguntzea.

**27. ZUZENKETA****JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI  
FERNÁNDEZ DE BARRENA  
FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Hirugarren xedapen gehigarria.

Gure erkidegoan hondakin bereziak tratatzeko zentro bat jarri nahi izanez gero, nahiz eta industria hondakinak tratatzeko zentroa izan, horren eragina jasanen duten herriek onetsi egin beharko dute proiektua.

Galdeketa-eremua zehazteko, udalez gaindiko proiektuak jasotako eragin-eremuari begiratu-ko zaio.

## ZIOEN AZALPENARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

### **28. ZUZENKETA**

#### **BATASUNA**

#### **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena kentzeko zuzenketa.

Legeak duen zioen azalpena kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Zioen azalpenak jarraitzen duen argudio-haria ez dator bat errealitatearekin: akats ugari ditu hondakinen katalogazioari buruz (ez dira arriskutsu gisa katalogatzen) eta administrazioen eskumen maileri buruz (ez dagozkien eskumenak egozten zaizkie zenbait entitateri).

Halaber, herritar taldeek eginiko oposizio jarduerak epaitzen dira, eta hori lege maila izanen duen testu batean jasotzea ez da egokia.



---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko Foru Legea aldatzekoa**

### *AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2001eko irailaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

### **1. ZUZENKETA**

#### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Hona testua:

“Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak aurrekontuen bitartez ehiza barrutietako titularrak lagunduko ditu, baina zuzeneko erantzukizunak haiena izaten jarraituko du, kalteen kostua murrizten lagunduko duten ehiza espezieen kudeaketa-neurrien aplikazioa exijitu ahal dakien”

Zioak: 1. artikulua orokorra da, eta zuzeneko erantzukizuna norena den ezarri nahi du. Gure ustez, gure proposamenarekin egoera zuzenagoa izanen da.

### **2. ZUZENKETA**

#### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Hona testua:

“Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartuko ditu ehiza-barrutietatik heldu diren hegazti eta basa-ugaztunek errepideetan sortutako istri-

puen ondoriozko kalteengatik eman beharreko kalte-ordainak. Halaber, behar diren neurriak ezarriko ditu basa-faunak sortutako trafiko-istripuak gutxitzeko.”

Zioak: Ehiza barrutietatik erator daitezkeen kalte-ordainetarako kasuak eta arrazoiak zehaztea.

### **3. ZUZENKETA**

#### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Hona testua:

“Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartuko ditu hegazti eta basa-ugaztunek errepideetan sortutako istripuen ondoriozko kalteengatik eman beharreko kalte-ordainak. Halaber, behar diren neurriak ezarriko ditu basa-faunak sortutako trafiko-istripuak gutxitzeko.”

Zioak: Ehiza barrutietatik ez datozen kalte-ordainetarako kasuak eta arrazoiak zehaztea.

### **4. ZUZENKETA**

#### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Lizentziak Lurraldearen Antolamendu eta Ingurumen Departamentuak emanen ditu; haien berritzeko epe eta moduei buruzko arau zehatzak erregelamendu bidez ezarriko dira.”

Zioak: Gure ustez kontu burokratikoak dira, urtez urte bitarteko tekniko eta mekanikoekin hobetzen joanen direnak; horrenbestez, arinagoa eta koherenteagoa da eta zerbitzu hobea ekarriko du haien lege bidez baino erregelamendu bidez ezarritzea. Erregelamendua egokiagoa da horretarako.

## 5. ZUZENKETA

### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO** PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa

a) Ehiza babesteko behar adinako zaintza ematea barrutiari. Zaintza horren garapena eta betekizunak erregelamendu bidez arautuko dira.”

Zioak: Gure ustez egokiagoa da halako gaiak lege bidez baino erregelamendu bidez zehaztea.

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean irrati-komunikazioko instalazioak antolatzea**

### *AKATS ZUZENKETA*

Nafarroako Foru Komunitatean irrati-komunikazioko instalazioak antolatzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak argitaratu zirenean akats bat antzeman da gaztelaniazko testuan. Zuzenketa horiek 2002ko otsailaren 22ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren. Hona zuzenketa:

Gaztelaniazko aldizkarian, 4. orrialdean, bosgarren zuzenketan, “formulada por el Grupo Par-

lamentario Unión del Pueblo Navarro” esan ordez, haxe esan behar du:

“formulada por el Grupo Parlamentario Socialistas del Parlamento de Navarra”.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erriberri aldean telebistako emisioak behar bezala hartzeko neurriak har ditzan**

*ERRETIRATUTAKO MOZIOA*

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erriberri aldean telebistako emisioak behar bezala hartzeko neurriak har ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak

aurkeztu zuen mozioa erretiratu duela jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen. Mozio hori 2001eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva  
Murguialday



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> <b>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</b> Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat ..... 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,14 »	